



**ITSASONDOKO
UDALA**



Herritar agurgarria,

Covid-19 birusaren pandemiak izandako eraginen artean, kontziente gara zure jarduerari eragin dion kalteaz. Jarduera geldirik egoteak diru-sarrerarik ez izatea dakar eta horrez gainera, gastu finkoek hor diraute. Gainera, ez dakigu egoera hau zenbateraino luzatuko den, hori da gogorrena.

Egoera zail hau gaindituko dugu, ziur egon, denboraz eta gauzak ondo egitearen poderioz. Udalari dagokionez, udal tasa eta zerga guztiak denboran etenda geratu dira eta egoera hau amaitzean jakinaraziko da egutegi fiskal berria. Horretaz gain, hainbat hobari aztertzen ari gara jarduera itxi behar izan duzuenontzat eta hauek ere jakinaraziko dizkizuegu.

Bestetik, hainbat hartu-eman izaten ari gara Udalaz gaindiko erakunde publikoekin eta Garapen Agentziekin, kasu honetan, Goiekirekin. Kalte ekonomikoak arintzeko ateratzen ari diren laguntza lerroei buruzko informazioa eta aholkularitza izan dezazuen lan egingo dugu.

Hain zuzen, gutun honetan atxikita jartzen dizuegu Udalaz gaindiko erakundeetatik jaso ditzakezuen laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza lortzeko bideak zeintzuk diren. GOIEKI Goierriko Garapen Agentzia arduratuko da erakunde ezberdinetako laguntza guztien inguruko aholkularitza emateaz.

Beraz, atxikita duzuen orria azertu eta bertan zehaztutako harreman bideak erabiltzeko gonbitea egiten dizuegu, zuen egoeraren berri izan dezaten eta laguntza eskaini diezazuen.

Besterik gabe, jaso gure animo eta agurra, eta laster arte,

Itsasondon, 2020ko apirilaren 3an